# Pailazoa egiazki mugikorra izan dadin...

## Abiapuntua

Pailazoa egin dugu baina ez da mugitzen.
Zer egin mugikorra izan dadin ?

## Hipotesia batzuk

Haurrek hipotesiak eginen dituzte.
Nola egin pailazoaren beso-zangoak mugi daitezen ?

Muntaia batzuen ideiak emanen dituzte.

## Egiaztatuko duen jarduera

Haur bakoitzak bere ideia gauzatuko du, erran nahi baita egina izan den muntaia hobetuko duela pailazoa mugikorra bilaka dadin. Hobekuntza hori beste lagunei aurkeztuko die.

## Ororen buru zer ?

Ikasle bakoitzak (edo taldean) aurkitu duen aterabidea irudikatuko du eskema bat eginez bere kaierean.

### Hiztegia

mugikor

ziri

### Azalpena

- Haur bakoitzak bere pailazoa eraiki du. Baina pailazoa ez da mugitzen. Irakaslearen galdea : nola egin pailazoa mugi dadin ?
- Haurrak gogoetan ari dira binaka edo taldeka. Hipotesiak azalduko dira eta eztabaidatuko.
- Talde bakoitzak bere aterabide hoberena gauzatuko du; hots, pailazoaren mugiarazteko sistema asmatuko du.
- Taldeek beren eskulana aurkeztuko dute.

Aterabide bat pailazoa egiazki mugikorra izan dadin.



| Pailazoa nola egin (1) | **Helburua :** | **Gaiari doakion jakintasuna :** | **Hizkuntzari doakion jakintasuna :** |
|---|---|---|---|

Orriaren pisua : 160 g bederen  Eskala : 1/1



Ikus argibideak ondoko orrialdean

| **Izena :** | **Ikas neurria** | | | **Norekin egina** | | | **Eguna :** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |

| Pailazoa nola egin (2) | **Helburua :** | **Gaiari doakion jakintasuna :** | **Hizkuntzari doakion jakintasuna :** |
|---|---|---|---|

**Pailazoaren muntaia-fitxa ikaslearentzat**

1. Pailazoaren burua eta gorputza inguruz-inguru motz aizturrez.

2. Aldean diren besoa eta zangoarekin berdin egizu.

3. Modelo bereko beste beso eta zango bat marraztu ondoan, hauek ere inguruz-inguru motz.

4. Elementu guziak mahai gainean ezar eta kolorezta itzazu.

5. Zilo handietan pasatuz lokailu bikoitzak, zangoak eta besoak gorputzari lot.

| **Izena :** | **Ikas neurria** | | | **Norekin egina** | | | **Eguna :** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |